Lurralde : invest. espac.	46	2023	p: 247-266	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)

EKONOMIA SOZIALAK OKUPAZIO-TASAN EGITEN DUEN EKARPENARI BURUZKO ESKUALDE AZTERKETA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASUA

ARTITZAR ERAUSKIN-TOLOSA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Ekonomia Aplikatua Saila
GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutoa (UPV/EHU)
Email: artitzar.erauskin@ehu.eus
ORCID: 0000-0002-4527-7180

AITZIBER ETXEZARRETA-ETXARRI

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Ekonomia Aplikatua Saila
GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutoa (UPV/EHU)
Email: aitziber.etxezarreta@ehu.eus
ORCID: 0000-0002-4239-092X

JULEN IZAGIRRE-OLAIZOLA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Finantza Ekonomia II Saila
GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutoa (UPV/EHU)
Email: julen.izagirre@ehu.eus
ORCID: 0000-0002-8854-3995

JON MORANDEIRA-ARCA

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Finantza Ekonomia II Saila
GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutoa (UPV/EHU)
Email: jon.morandeira@ehu.eus
ORCID: 0000-0003-2878-7629

LABURPENA

Ekonomia Sozialaren (ES) eremuaren berariazko azterketan aurrera egitea beharrezkoa da, eta, besteak beste, enpleguari eta erresilientzia ekonomikoari egiten dion ekarpena aztertzea; bai alderdi kuantitatiboari dagokionean, bai alderdi kualitatiboari dagokionean ere. Ikerketa lan honen helburua, 2016-2020 aldian ESak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eskualde ezberdinetako gizonen eta emakumeen okupazio-tasaren bilakaeran izan duen eraginari buruzko azterketa deskriptiboa aurkezten da. Horrenbestez, alde batetik, EAEko eskualde mailako ES ezaugarritzea ahalbidetzen duten aldagaiak aurkeztuko dira, bestetik, 2016-2020 aldirako okupazio-tasa kontuan izanik *Impact On Employment* (IOE) moduan izendatu den indize bat eraikiko da, gizon zein emakumeentzat, zeinak ESren

eta okupazio-tasaren arteko korrelazio maila zehaztea ahalbidetuko duen. Amaitzeko, aipatutako urrats ezberdinetan oinarrituz azterlan honek lortu dituen emaitzek berresten dute ESaren ekarpena desberdina dela emakumeen eta gizonen enplegu tasaren artean, eta horrek ikerketa sakonagoak eskatzen ditu, bai horien karakterizaziorako, bai errealitate horren interpretaziorako ere.

Gako hitzak: Ekonomia Soziala, enplegua, erresilientzia ekonomikoa, sexua/generoa, Euskal Autonomia Erkidegoa

ANÁLISIS REGIONAL DE LA CONTRIBUCIÓN DE LA ECONOMÍA SOCIAL A LA TASA DE OCUPACIÓN: EL CASO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

RESUMEN

Es necesario avanzar en el estudio específico del ámbito de la Economía Social (ES) y su contribución, entre otros aspectos, al empleo y a la resiliencia económica, tanto en su vertiente cuantitativa como cualitativa. El objetivo de este trabajo es presentar un análisis descriptivo sobre la contribución de la ES a la evolución de la tasa de ocupación de hombres y mujeres en las comarcas de la Comunidad Autónoma Vasca para el periodo 2016-2020. Así, por un lado, se presentarán las variables que permiten caracterizar la ES a nivel comarcal y, por otro, teniendo en cuenta la tasa de empleo para el periodo 2016-2020, se construirá un índice que ha sido denominado como *Impact on Employment* (IOE), tanto para hombres como mujeres, que permitirá determinar el grado de correlación entre la ES y la tasa de ocupación- Finalmente, los resultados obtenidos en este estudio a partir de los diferentes pasos mencionados corroboran la existencia de una contribución diferenciada entre la tasa empleo de las mujeres y la de los hombres, lo que requiere de una mayor investigaciones, tanto para su caracterización como para la interpretación de dicha realidad.

Palabras clave: Economía Social, empleo, resiliencia económica, sexo/género, Comunidad Autónoma Vasca

REGIONAL ANALYSIS OF THE CONTRIBUTION OF THE SOCIAL ECONOMY TO THE EMPLOYMENT RATE: THE CASE OF THE BASQUE AUTONOMOUS COMMUNITY

ABSTRACT

It is necessary to advance in the specific study of the field of the Social Economy (SE) and its contribution, among other aspects, to employment and economic resilience, both in

quantitative and qualitative terms. The aim of this paper is to present a descriptive analysis of the contribution of the SE to the evolution of the employment rate of men and women in the counties of the Basque Autonomous Community for the period 2016-2020. Thus, on the one hand, the variables that characterise the SE at the county level are presented and, on the other hand, taking into account the employment rate for the period 2016-202, an index called Impact on Employment (IOE) is constructed for both men and women, which allows us to determine the degree of correlation between SE and the employment rate. Finally, the results obtained in this study confirmthe existence of a differentiated contribution between the employment rate of women and that of men, , which requires further research, both for its characterisation and for the interpretation of this reality.

Keywords: Social Economy, employment, economic resilience, gender, Basque Autonomous Community

1. SARRERA

Kooperatibak eta Ekonomia Soziala osatzen duten beste erakunde batzuk[1], ikuspegi akademikotik zein instituzionaletik, elementu estrategikotzat hartu dira bai Monzonek (2013) azpimarratzen duen moduan hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzailea sustatzeko, zein lurraldeen tokiko garapena indartzeko ere (Williamson et al., 2003). Are gehiago, Birchall eta Ketilsonek (2009) diotenez kooperatibek zein gizarte-ekonomia osatzen duten erakundeek atzeraldi ekonomikoko epealdietan enpresa konbentzionalek baino baldintza hobeetan erantzuten dute, alde batetik, enplegu egonkorra sortzen dutelako eta ekonomia- eta gizarte-kohesioa indartzen dutelako (Birchall eta Ketilson, 2009; Chaves eta Monzón, 2012; Castro et al, 2013) eta, bestetik, atzeraldi-garaietan ziklo ekonomikoaren aurkako portaera erakusten dutelako (Grávalos eta Pomares, 1991).

Sektore publikoak eta sektore pribatu kapitalistak zailtasun handiak izan zituzten 2008ko krisian herrialde askotan, aldiz, kooperatibek eta Ekonomia Sozialeko beste erakunde batzuek egonkortasun eta erantzuteko gaitasun handiagoa erakutsi zuten krisialdiko urte hauetan (Stiglitz, 2009; Birchall, 2013), azken batean, izaera anti-zikliko nabarmena erakutsi zuten (Bartlett eta Pridham, 1991; Grávalos eta Pomares, 1991; Westerdahl eta Westlund, 1998). Funtsezko elementuak dira, besteak beste, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko eta mantentzeko gaitasuna (Burdin eta Dean, 2009; Perotin, 2013), diru-sarreretan dagoen desberdintasunari aurre egiteko gaitasuna (Ben-ner et al., 2011), ondasun eta zerbitzu

1 2011ean Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legea onetsi zen, ekonomia soziala osatzen duten entitateentzako esparru juridiko komun bat ezarriz. Legean ondorengo entitateak barnebiltzen dira (5.art.): kooperatibak, mutualitateak, jarduera ekonomikoa duten fundazio eta elkarteak, lan-sozietateak, laneratzeko enpresak, enplegu-zentru bereziak, arrantzaleen kofradiak, eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak.

publikoak hornitzeko gaitasuna (Erdal, 2011, 2014; Thomas, 2004), integrazio eta kohesio sozial hobea lortzen laguntzeko gaitasuna (Bel eta Ausín, 2007) edo erresilientzia ekonomiko hobea lortzeko gaitasuna (Cheney et al., 2014). Beraz, Ekonomia Sozialeko entitateek funtsezko zeregina dute gizarte-mailan sortzen dituzten ondorio positiboak direla eta.

Ildo berari jarraituz, ikerketa lan honen helburua da azterketa deskribatzaile bat aurkeztea. Azterlan honetan korrelazio batzuk kalkulatu dira, ESak Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako gizonen zein emakumeen enplegu-tasari egiten dion ekarpenaren neurketan aurrera pausu bat egin asmoz.

Horrenbestez, artikulu hau honela dago egituratuta: bigarren atalean, marko teorikoan sakontzen da zeinetan ESari eta enpleguari buruzko zenbait ikerlan azpimarratzen diren; hirugarren atalean azterketa honetan erabilitako metodologia azaltzen da eta lortutako emaitzen analisia jasotzen da. Laugarren atalak lortutako emaitzetatik eratorritako eztabaidak eta ondorioak aurkezten ditu.

2. ESPARRU TEORIKOA: EKONOMIA SOZIALA (ES) ETA ENPLEGUA

2008ko finantza-krisiak eragindako ondorioak aztertu dituzten lan akademikoek ekarpen handia egin diote nazioarteko literaturari. Esate baterako, hainbat egileek (Zevi et al., 2011; Rondinelli eta Sarateanu, 2012; Carini y Carpita, 2014; Co-operatives UK, 2014;) krisi ekonomikoko egoerei kooperatibak inguruko beste enpresa konbentzional batzuek baino baldintza hobeetan aurre egiteko gai izan direla ondorioztatu dute. Espainiar estatuaren kasuan, Sala et al. (2014) Espainiar estatuko kooperatibek 1995-2013 aldian izandako portaera ziklikoa aztertu zuten hurrengoa antzeman zuten: kooperatibek hobeto eusten diotela fase atzerakorren eraginari, erakundeak mantentzeari eta sortzeari dagokionean egiaztatu dute, baina ez diote neurri berean eusten enpleguaren mantentzeari, hots, kooperatiben kasuan ziklo ekonomikora nolabait egokitzen da enplegua.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Bretos eta Morandeira (2016) egileek 2008 eta 2014 arteko krisi-aldian gizarte-ekonomiak izan duen bilakaera deskribatzen duen azterlanean lortutako emaitzek iradokitzen dute Ekonomia Sozialaren sektoreak eta kooperatibek hobeto erantzuten diotela krisiari Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia orokorrak baino, batez ere enpleguari dagokionez. Ildo beretik, Morandeirak (2014) adierazten du kooperatibek enpleguaren eusteari dagokionez balio negatibo batzuk izan badituzte ere 2008ko krisiaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidego osoan erregistratutakoak baino txikiagoak izan direla, eta balio negatibo horiek kooperatibetako behin-behineko soldatapeko enpleguari lotuta daudela gaineratzen du. Aurreko bi lan horiek agerian uzten dute beharrezkoa dela kooperatibismoari eta Ekonomia Sozialaren buruzko estatistika ofizial homogeneoak, osoak eta jarraituak izatea; izan ere, Ekonomia Sozialaren kuantifikatzeko estatistikak eta tresnak izatea funtsezko alderdia baita errealitate sozial hori politikaren, akademiaren eta gizarte zibil antolatuaren imajinario sozialean erabat txertatzeko (Chaves et al., 2013).

Berriki, Covid-19aren testuinguruan, Juliák, Bernalek eta Carrascok (2022) Espainiako testuinguruan kokatutako azterketa bat egin zuten, non nabarmentzen zuten, alde batetik, Espainiak nagusiki tamaina txikiko enpresez osatutako enpresa-egitura bat duela eta, bestetik, Ekonomia Sozialaren erakundeak elkarren arteko laguntza-sareak sortzen duen erresilientziagatik eta arlo ekonomiko zein soziala uztartzen dituzten proiektu kolektiboak bultzatzeko gaitasunagatik bereizten direla. Era berean, ondorioztatu zuten Ekonomia Sozialaren familien artean, eta Espainiako produkzio-sare osoarekin alderatuta, kooperatibak nabarmentzen direla bai enpresa-kopuruari dagokionez bai enpleguari dagokionez hobekien eutsi duten enpresak izan direlako.

Nazioarte mailan, Alvarezek, Bouchardek eta Marcolak (2022) Covid-19 pandemiak nazioartean eragindako krisi globalak nola eragin zuen aztertu zuten, baita ESk etorkizuneko lurralde ezberdinen susperraldi sozial eta ekonomikoan izan duen papera ere. Quebecen (Kanada), Kolonbian eta Espainian egindako behaketen ondoren, ESren eraginaren seinale komunak identifika daitezke. Dena delako herrialdea gorabehera, ESeko enpresen erantzunak honako eremu hauetan kontzentratu ziren: larrialdiko laguntza zuzenak, finantza-laguntza, enpresa-kudeaketako eta trantsizio digitaleko egokitzapen teknologikoak eta politika publikoen baterako eraikuntza.

Bestalde, bada lan-ildo bat, oinarri duena kooperatibek, berdintasun- eta ekitate-printzipioez gain, enpresa-testuinguru erresilienteagoa eskaintzen dutela, beren printzipioei eta balioei esker. Erresilientzia okupazio-tasaren araberako aldagai gisa definitzen da; zehazki, aldi jakin bateko okupazio-tasa txikiaren frakzio gisa, erreferentziako urteko okupazio-tasaren artean (Terzo, 2021). Azterketa ekonometrikoa da, eta Italiako hainbat eskualdetarako erresilientzia ekonomikoan Ekonomia Sozialak eta kapital sozialak egiten duten ekarpena neurtu du. Horretarako, adierazle gisa, enplegu kooperatiboaren dentsitatea eta boluntariotzaren dentsitatea erabiltzen ditu aztertutako eskualde bakoitzean. Erregresio horren emaitza gisa, lehenengo aldagaiak, enplegu kooperatiboaren dentsitateak, emaitza nabarmen positiboa erakusten du, eta bigarrenak, aldiz, ez.

3. EKONOMIA SOZIALAK ERRESILIENTZIA EKONOMIKOARI EGITEN DION EKARPENAREN AZTERKETA BAT: EAEren KASUA

Glaeser eta Shleifer-en arabera (2001), Ekonomia Sozialaren baitan sortutako merkataritzakoak ez diren elkarrekintzek inpaktu ekonomiko garrantzitsua dute. Badirudi, beraz, denboran zeharreko azterketa ekonometriko bat alternatiba egokia izango litzatekeela honako hipotesi hau alderatzeko: kapital sozialaren formek – Ekonomia Sozialeko erakundeen barneko eta kanpoko harreman-dimentsio ezberdinen bidez adierazita egongo direnak– gizarte babeserako sare bat osatu ahal dute zeinaren bidez kanpoko talka batek enpleguan duen eragina arintzeko gai izango den. Hala ere, EAEren kasuan, ez dago Ekonomia Sozialari buruzko behar beste daturik, ez lurralde- zein denbora-desagregazioari dagokionean, hau da, epe luzeko analisirako edo zeharkako modelizazio ekonometrikorako

baliagarriak izan daitezkeen behar adina daturik ez dago momentuz eskuragarri; egun 2014, 2016, 2018 eta 2020 urteetarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko 11 eskualdeetarako (ikus Ilustrazioa 1) datuak daude eskuragarri.

Horrenbestez, 3.1 azpiatalean EAEko Ekonomia Soziala ezaugarritzeko erabili diren aldagaiak eta hauen balioak EAEko 11 eskualdetarako desagregatuak aurkeztuko dira. Hurrengo azpiatalean, 3.2an, EAEko 11 eskualdeen enplegu tasaren bilakaera, 2016-2020 aldian, kalkulatuko da. Hirugarren azpiatalean, 3.3an, ES ezaugarritzeko erabili diren aldagaien eta IOE indizearen arteko korrelazioak kalkulatu dira.

Ilustrazioa 1: EAEko 11 eskualde Lan Merkatuko Errolda (LME) irizpidearen arabera
Iturria: Egileek egina

3.1. EAEko Ekonomia Sozialaren ezaugarritzea

Kooperatiba batek dituen langileen kopurua zein kooperatibak (establezimenduak) Ekonomia Soziala ezaugarritzen dituzten aldagai gisa erabili izan dira adibidez Percoco (2012), Bruni et al. (2019) eta Terzo (2021) egileek argitaratutako lan ezberdinetan.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko lege-esparruarekin bat etorriz (61/2000 Dekretua), kooperatibak gizarte-ekimenekotzat jotzen dira, irabazi-asmorik gabekoak eta edozein motatakoak direla ere, honako helburu sozial hauek betetzen badituzte: i) osasun-jarduerak, ii) hezkuntza-jarduerak, iii) kultura-jarduerak edo iv) gizarte-izaerako beste jarduera batzuk eginez asistentzia-zerbitzuak ematen badituzte, esate baterako, gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonak laneratzea helburu duen edozein jarduera ekonomiko garatu eta, oro har, merkatuak artatzen ez dituen gizarte-premiak asetzen badituzte.

Hainbat egileek, Lee (2014), Kitsos eta Bishop (2018), Ezcurra eta Rios (2019), Cappelli et al. (2021), eta Terzo (2021), elkarte zein fundazioetan parte hartzen duten pertsona boluntarioen kopurua eta antzeko aldagaiak ere erabili izan dituzte eremu geografiko bateko Ekonomia Soziala ezaugarritzeko.

Ikerketa lan honetan, EAEko Ekonomia Sozialaren ezaugarritze gisa, honako aldagai hauek erabili dira (ikusi 1. taula): kooperatibetako enplegu kopurua (Koop_enpl), industria-sektoreko kooperatibetako enplegua (Koop_enpl_ind), zerbitzu-sektoreko kooperatibetako enplegua (Koop_enpl_zerb), establezimendu kooperatiboak (Koop_establ), kapital-soziala (Kapital_Soziala).

1 Taula: Ekonomia Soziala ezaugarritzen dituen aldagaiak

Aldagaiaren izena	Deskribapena	Iturria
Koop_enpl	Kooperatibetako enplegu-kopurua, enplegu-kopuru osoaren ehunekoa.	Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren Euskal Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren emaitzei buruzko txostenak https://www.euskadi.eus/txostena_ikerketa/informes-de-resultados-de-la-estadistica-de-la-economia-social-vasca/web01-s2lanju/es/
Koop_enpl_ind	Industria-sektoreko kooperatibetako enplegu-kopurua, industria-enplegu osoarekiko.	
Koop_enpl_zerb	Zerbitzuen sektoreko kooperatibetako enplegu-kopurua, zerbitzuen enplegu guztiarekiko	
Koop_establ	Establezimendu kooperatiboen kopurua, establezimendu guztien ehunekoaren arabera.	
Gizarte-Ekimen_koop	Gizarte-ekimeneko kooperatiben dentsitatea: Gizarte-ekimeneko kooperatiben kopurua 1.000 biztanlek.	Kooperatiben Erregistroa. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saila https://opendata.euskadi.eus/catalogo/-/registro-de-cooperativas-de-euskadi/
Kapital_soziala	Kapital sozialaren dentsitatea: Onura publikoko elkarteen eta fundazioen kopurua 1.000 biztanleko	Elkarteen erregistroa: https://opendata.euskadi.eus/catalogo/-/registro-asociaciones-euskadi/ Fundazioen erregistroa: https://opendata.euskadi.eus/catalogo/-/registro-fundaciones-euskadi/

Iturria: Egileek egina

Hurrengo ilustrazioak 2 EAEko Ekonomia Soziala ezaugarritzeko erabili diren bi aldagaien, hau da, enplegu kooperatiboaren ehunekoaren banaketa espaziala erakusten dute, bai industria-sektorean, bai zerbitzu-sektorean. Debagoiena eskualdea nabarmentzen da enplegu kooperatiboak garrantzi erlatibo handia duelako guztizko enpleguarekin alderatuta; industria sektoreko enpleguaren %66 baino gehiago eta zerbitzu sektoreko enpleguaren %26 inguru kooperatibek sortutako lanpostuak dira. Tolosa-Goierri, Bizkaia-Kosta eta Eskuinaldea eskualdeek ere enplegu kooperatibo handia dute industria-sektorean, bigarren sektoreko enpleguen %21,5, %27,6 eta %29,5 enplegu kooperatiboak baitira, hurrenez hurren.



Ilustrazioa 2: Enplegu kooperatiboaren garrantzia industria-sektorean eta zerbitzu-sektorean. Ehunekotan eta eskualdeka.
Iturria: Egileek egina

Establezimendu kooperatiboen kasuan, enplegu kooperatiboekin gertatzen moduan, Debagoiena eskualdea gainontzeko 10 eskualdeetatik bereizten da nabarmenki, izan ere, eskualde honetan establezimenduen hiru laurden baino gehiago gizarte ekonomiari loturiko establezimenduak dira. EAE beste eskualdetan kooperatiba establezimenduek duten garrantzia askoz ere baxuagoa da, gehienez 100 establezimenduetatik 4 dira gizarte ekonomiari dagozkionak (ikusi Ilustazioa 3).



Ilustrazioa 3: Establezimendu kooperatiboaren garrantzia. Ehunekotan eta eskualdeka.
Iturria: Egileek egina

Hurrengo Ilustrazioan 4 EAEko 11 eskualdetan Gizarte Ekimeneko kooperatiben presentzia jasotzen da. Aldagai honi dagokionean, Debagoiena eskualdeak du daturik positiboena. Jarraian, Bilbo, Eskuinaldea eta Tolosa-Goierri eskualdeek dituzte daturik hoberenak. Azpimarratzekoa da 3 eskualdeetan (Aiaraldea, Debabarrena eta Ezkerraldea) 2020 urtean ez zegoela gizarte-ekimeneko kooperatibarik.



Ilustrazioa 4: Gizarte-ekimenko kooperatiboaren garrantzia eskualdeka.
Iturria: Egileek egina

Kapital-soziala aldagaiari loturik aipatu, bataz beste EAEn 1.000 biztanleko 1,05 Onura Publiko elkarte eta fundazio zeudela 2020 urtean. Eskuinaldea, Bilbo eta Aiaraldea eskualdeetan kapital-sozialaren presentzia handiagoa da (ia 1,9 Onura Publiko elkarte eta fundazio daude 1000 biztanleko Eskuinaldean). Debagoiena eskualdea, aldiz, bataz besteko datutik (1,05) hurbil dagoen arren ez da aurreko aldagaietan bezala nabarmentzen. Baliorik txikienak agertzen dituzten bi eskualdeak, Tolosa-Goierri (0,59 Onura Publiko elkarte eta fundazio daude 1000 biztanleko) eta Durangaldea dira (0,65 Onura Publiko elkarte eta fundazio daude 1000 biztanleko) ikusi Ilustrazioa 5.



Ilustrazioa 5: Kapital-sozialaren garrantzia eskualdeka.
Iturria: Egileek egina

3.2 Enplegu tasaren bilakaera EAEn 2015-2021 bitartean

Euskal Autonomia Erkidegoko okupazio tasaren datuak Eustat – Euskal Estatistika Erakundetik lortu dira, zehazki, Biztanleen Udal Estatistiketatik. Datu-base horrek okupazioaren, enpleguaren eta biztanleriaren tasari buruzko urteko datuak biltzen ditu, 2015etik 2021era bitartean sexuaren arabera bereizita EAEko 251 udalerrirentzat (baina 2017rako daturik gabe). Datu hauekin Euskal Autonomia Erkidegoko 11 eskualdeei dagokien batez besteko okupazio tasa kalkulatu da.

6. Ilustrazioan ikusi daitekeenez EAEko 11 eskualdeen kasuan 2015-2021 aldian okupazio tasak daturik txarrena 2016 urtean erakutsi du. Ondorengo urteetan enpleguak bilakaera positiboa izan du 2019/2020 urtera arte. Horrez gain, azpimarratzekoa da gizonezkoen okupazio tasa emakumezkoena baino handiagoa dela 11 eskualdetan. Hau da, EAEn 2015-2021 urte bitartean gizonezkoen okupazio tasarik txikiena %49 ingurukoa izan zen Bilbo eskualdean 2016 urtean eta baliorik handiena Tolosa-Goierri eskualdeak izan zuen 2019 urtean %58,5eko okupazio tasa jaso zelarik gizonezkoentzat. Emakumezkoen kasuan, enplegu tasa txikiena Bilbo eskualdeak izan zuen 2016 urtean, %41,4koa, eta emakumeen enplegu tasa handiena (%50,3) Eskuinaldea eskualdeak 2020 urtean. Emakumezko eta gizonezkoen okupazio tasaren arteko diferentzia, bai baliorik txikiena zein handienaren kasuan, 8 puntukoa izan da aztertu den denbora epean, baina datuak 2016 urtetik aurrera gizonezko eta emakumezkoen okupazio tasaren arteko aldeak murrizteko joera orokortua erakusten du.


AIARALDEA
60,0
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


BILBO
60,0
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


BIZKAIA-KOSTA
60,0
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


DEBABARRENA
60,0
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


DEBAGOIENA
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


DONOSTIALDEA
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


DURANGALDEA
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.


ESKUINALDEA
60,0
58,0
56,0
54,0
52,0
50,0
48,0
46,0
44,0
42,0
40,0
2015
2016
2018
2019
2020
2021
O.T orokorra
Gizonezkoen O.T.
Emakumezkoen O.T.







Ilustrazioa 6: EAEko 11 eskualdetako enpleguaren bilakaera. 2015-2021.
Iturria: Egileek egina

Bestalde, Alessi et al-ek (2020) eta Terzo-k (2021) eskualde batek kanpoko fenomeno baten aurrean xurgatzeko duen ahalmena neurtzeko proposatutako metodologia jarraituz, *Impact On Employment* adierazlea kalkulatu da ikerketa lan honetan. Hau da, 2015. urteko okupazioaren/enpleguaren tasaren eta 2016 eta 2020 bitartean enpleguan izandako urterik txarrenaren arteko erlazioa definitu da hurrengo formulak adierazten duen moduan:

IOE adierazlearen balioa 1 baino handiagoa izateak okupazio-tasaren bilakaera positiboa izan dela adierazten du, aldiz IOE adierazlearen balioa 1 baino txikiagoa bada, okupazio-tasaren bilakaera negatiboa izan dela adierazten du. Hazkunde ekonomikoko aldietarako, hau da, enplegu-tasak goranzko joera duten aldietarako, IOE indizeak 1eko balioa hartzen badu enplegu-tasa kontsolidatu egin dela interpretatu daiteke. Krisi ekonomikoko aldietarako, IOE indizearen 1 balioa erresilientzia ekonomikoaren indizearen baliokidea izango litzateke.

7. Ilustrazioak EAEko 11 eskualdetarako kalkulatu den IOE aldagaiaren balioak erakusten ditu, bai indize orokorrerako, bai sexuaren arabera bereizita ere. Ikus daitekeenez, 2016-2020 aldian, EAEko enplegu-tasak bilakaera positiboa izan du; izan ere, batez beste, 2016-2020 aldiko daturik txarrena kontuan hartzen badugu eta 2015ekoarekin alderatzen badugu, balio minimoa erreferentziako baliora asko hurbiltzen da eta horrenbestez IOEren balioa 1 baino txikiagoa den kasuetan ez da 1 balio horretatik asko aldentzen. Alegia, IOE indize orokorraren kasuan, Tolosa-Goierri (1.03), Durangaldea (1.01) eta Ezkerraldea (1.01) eskualdeetan 2016-2020 aldirako gutxieneko okupazio-tasa erreferentziatzat hartu den

oinarri-urtekoa baino hobea izan da. Beraz, esan daiteke hiru eskualde horiek 2016-2020 errekuperazio-aldian okupazio-tasa finkatzea eta hobetzea lortu dutela. Bestalde, 1 baliotik oso hurbil daude Debabarrena (0.9969), Debagoiena (0.996), Bizkaia-Kosta (0.998) eta Eskuinaldea (0.998) eskualdeak

Hala ere, aldeak ikusten dira IOE_G (*Impact On Employment gizonentzat*) eta IOE_E (*Impact On Employment emakumeentzat*) indizeen artean. Zehazki, emakumeen bilakaera gizonena baino txarragoa izan da EAEko 11 eskualdeetan. Emakumeen IOE indizearen kasuan, eskualde guztiek 1etik beherako balioak dituzte, nahiz eta gehienak balio horretatik oso hurbil egon; beraz, esan daiteke EAEko eskualde gehienek, susperraldi ekonomikoaren faseko urterik txarrenean behintzat, emakumeen okupazio-tasari eustea lortu dutela. Emakumeen IOEko balio txarrenak dituzten eskualdeak Eskuinaldea (0.88) eta Debabarrena (0.84) dira.



Ilustrazioa 7: IOE indizearen balioak 2016-2020 aldirako. Oinarri urtea 2015
Iturria: Egileek egina

Bestetik, IOE_G eta IOE_E indizeen emaitzak kontuan izanik hiru eskualde talde bereiz daitezke. 8. Ilustrazioan ikus daitekeen moduan: i) lehen taldea Aiaraldea, Gasteiz, Bilbo, Bizkaia Kosta eta Donostialdea eskualdeek osatzen dute, eta eskualde hauen kasuan bi indizeek (IOE_G eta IOE_E) 1etik beherako balioa dute; ii) bigarren taldean Debagoiena, Tolosa-Goierri, Ezkerraldea, Durangaldea eskualdeak leudeke, zeinetan IOE_E indizea 1 bainoa txikiagoa den, nahiz eta 1etik gertu dagoen, eta IOE_G indizeak 1 baino balio handiagoa duen; iii) hirugarren taldea Debabarrena eta Eskuinaldea eskualdeek osatzen dute. Bi eskualde hauentzat IOE_G indizea 1 baino handiagoa da, IOE_E indizea 0.9 baino txikiagoa da. Beraz, esan daiteke Debagoiena, Tolosa-Goierri, Ezkerraldea eta Durangaldea

eskualdeek bermatu ahal izan dutela hobekien okupazio maila bai emakume zein gizonen kasuan 2016-2020 urteen artean.



Ilustrazioa 8: EAEko eskualdeen sailkapena IOEG eta IOEE indizearen arabera
Iturria: Egileek egina

3.3 EAEko ES eta enplegu-tasaren arteko korrelazioa

9. Ilustrazioan ESko aldagaien eta 2016-2020 aldiko enplegu-tasaren bilakaera neurtzen duten aldagaien artean lortu diren korrelazioak agertzen dira. Alde batetik, ESko aldagaien artean, IOErekin korrelazio handiena dutenak kooperatibetako enplegu-kopurua (Koop_enpl, koop_enpl_ind, Koop_enpl_zerb) eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kopurua (Gizarte-ekimen_koop) daude. Bestetik, azpimarratzekoa da ESren aldagaien eta EAEko eskualdeetako okupazio-tasaren aldakuntza neurtzen duen aldagaiaren arteko korrelazioak txikiagoak direla azterketa emakumeen kolektiboan mugatzen bada. Adibidez, Koop_enpl aldagaiak korrelazio txikiagoa du IOErekin emakumeen kasuan (0,062), egoera orokorrarekin alderatuta (0,132).



Ilustrazioa 9: ESko aldagaien eta IOEren arteko korrelazioak
Iturria: Egileek egina

4. EZTABAIDAK ETA ONDORIOAK

Artikulu honetan EAEko ESk enplegu-tasaren gainean duen eragina aztertu da, horretako EAEko eskualde-mailarako argitaratuak dauden ESko hainbat aldagaien eta enplegu-tasaren bilakaeraren arteko erlazioa aurkeztu du. Azpimarratu behar da momentuz berariazko estatistika gutxi badago ere, hau egiturazko arazo bat dela Ekonomia Sozialaren kasuan bai estatu zein nazioarte mailan, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (OVES-GEEB) argitaratutako datuetatik abiatuta, eredu deskribatzaile bat eta korrelazio-sistema bat eraiki dira EAEko kooperatibek enpleguari egiten dioten ekarpena azaltzeko.

Oro har, ikerketa lan honek hainbat emaitza erakusten ditu. Lehenik eta behin, EAEko eskualdeak ezaugarritu dira ESko hainbat aldagaietan oinarrituta. Bai kooperatibetan pilatzen diren enplegu kopuruaren zein establezimenduka kontuan izanik 11 eskualdeetatik bat, Debagoiena, nabarmentzen da non kooperatibismoa oso errotuta dagoen; Debagoiena eskualdean industria sektorean ziharduten 100 enpleguetatik ia 70 kooperatibako langileak dira. Gainerako 10 eskualdetan gehienez industria sektorean diharduten 100 enpleguetatik gehienez 4 izango dira kooperatibako langileak.

Bigarrenik, EAEko 11 eskualdeen kasuan 2015-2021 urteetan enpleguak bilakaera positiboa izan du 2019/2020 urtera arte, azpimarratzekoa da emakumezkoen okupazio tasa gizonezkoena baino baxuagoa dela eremu geografiko guztietan nahiz eta diferentziaren joera beherakorra antzeman den.

Bestetik, ikerketa lan honen azterketa-aldirako lortutako emaitzek ez dute baieztatzen enplegu-tasa orokorraren eta ESren arteko lotura zuzenaren hipotesia. Hala ere, baiezta daiteke ESk pisu handiagoa izateak eragin positiboa duela gizonen okupazio-tasaren bilakaeran, nahiz eta emakumeen kasuan erlazio hori ez den betetzen. Alegia, aurreko atalean deskribatutako korrelazioen bidez egiazta daiteke sexuen araberako erlazio bereizia dagoela Ekonomia Sozialak enpleguari egiten dion ekarpenaren eremuan. Eskualde gehienetan, lotura zuzena dago gizonen enplegu-tasaren sendotzearen eta ESren artean; hau da, esan daiteke ESren pisu handiagoak eragin positiboa duela gizonen okupazio-tasaren bilakaeran eta emaitza honek bat egiten du Terzoren (2011) emaitzekin; izan ere, kooperatiba-dentsitateak lotura positiboa du Italiako zenbait eskualdetako erresilientzia ekonomikoarekin, enpleguari dagokionez neurtuta. Baina, azterlan honetan lortutako balioek iradokitzen dute ez dagoela lotura zuzenik enplegu-tasaren finkapenaren eta ESren artean emakumeen kasuan. Hots, ES gehien duten eskualdeek ez dute bermatzen hazkunde ekonomikoko aldietan emakumeen enplegu-tasa gehiago finkatuko denik. Hori ezin da erraz kokatu literatura akademikoan, ez baitago orain arte egindako antzeko ikerketa askorik.

Orokorrean eta sexu arteko bereizketarik egiten ez bada, ES ezaugarritzen duten aldagaien eta eskualdeen erresilientziaren arteko emaitzak bat egiten du Sala et al. (2014) emaitzarekin; alegia, kooperatibek erakundeen mantentzean eta sorreran eragin positiboa dutela egiaztatzen da.

Etorkizuneko ikerketa-lerroek sakonago aztertu beharko lituzkete lan honetan aurkeztu diren harremanak, ikuspegi deskriptibo batetik, eta, ahal dela, baita ikuspegi estatistiko sendoago batetik ere, artikulu honetan ezin izan baita garatu laginaren tamaina txikiagatik.

5. BIBLIOGRAFIA

ALESSI, L., BENCZUR, P., CAMPOLONGO, F., CARIBONI, J., MANCA, A. R., MENYHERT, B., PAGANO, A. 2020. The resilience of EU member states to the financial and economic crisi. *Social Indicators Research*, 148, 569–598. https://doi.org/10.1007/s11205-019-02200-1

ÁLVAREZ, J. F., BOUCHARD, M. J., MARCUELLO, C. 2022. Economía Social y covid-19: Una mirada internacional. *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, 104, 203–231.

BARTLETT, W., PRIDHAM, G. 1991. Co-operative enterprises in Italy, Portugal and Spain: history, development and prospects. *Journal of Interdisciplinary Economics*, 4(1), 33–59.

BEL, P., AUSÍN, J. M. 2007. Contribución de las sociedades cooperativas al desarrollo territorial. *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 92, 41–71.

BEN-NER, A., REN, T., Y PAULSON, D. F. 2011. A sectoral comparison of wage levels and wage inequality in human services industries. *Nonprofit and Voluntary Sector Quarterly*, 40(4), 608–633.

BIRCHALL, J., KETILSON, L. H. 2009. *Resilience of the cooperative business model in times of crisis*. International Labour Organisation.

BIRCHALL, J. 2013. The potential of co-operatives during the current recession; theorizing comparative advantage. *Journal of entrepreneurial and organizational diversity*, 2(1), 1-22.

BRETOS, I., MORANDEIRA, J. 2016. La economía social ante la actual crisis económica en la Comunidad Autónoma de Euskadi. *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 112, 7–33.

BRUNI, L., DE ROSA, D., FERRI, G. 2019. Cooperatives and happiness. Cross-country evidence on the role of relational capital. *Applied Economics*, 51(30), 3325–3343. https://doi.org/10.1080/00036846.2019.1575944

BURDIN, G., DEAN, A. 2009. New evidence on wages and employment in worker cooperatives compared with capitalist firms. *Journal of comparative economics*, 37(4), 517–533.

CAPPELLI, R., MONTOBBIO, F., MORRISON, A. 2021. Unemployment resistance across EU regions: The role of technological and human capital. *Journal of Evolutionary Economics*, 31(1), 147–178. https://doi.org/10.1007/s00191-020-00693-5

CARRASCO, C. 2009. La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes. *Revista de Economía Crítica,* 11, 205–225.

CARINI, C., CARPITA, M. 2014. The impact of the economic crisis on Italian cooperatives in the industrial sector. *Journal of Co-operative Organization and Management*, 2(1), 14–23.

CASTRO NÚÑEZ, R. B., SANTERO SÁNCHEZ, R., MARTÍNEZ MARTÍN, M. I., GUILLÓ RODRÍGUEZ, N. 2013. Impacto socioeconómico de las empresas de Economía Social en España. Una valoración cuantitativa de sus efectos sobre la cohesión social. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 79, 35–58.

CHAVES, R., Y MONZÓN, J. L. 2012. Beyond the crisis: the social economy, prop of a new model of sustainable economic development. *Service Business*, 6(1), 5–26.

CHAVES, R., MONZÓN, J.L., PÉREZ DE URALDE, J.M., RADRIGÁN, M. 2013. La Economía Social en Clave Internacional. Cuantificación, Reconocimiento Institucional y Visibilidad Social en Europa, Iberoamérica y Norte de África. *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 112, 122–150.

CHENEY, G., SANTA CRUZ, I., PEREDO, A.M., NAZARENO, E. 2014. Worker cooperatives as an organizational alternative: Challenges, achievements and promise in business governance and ownership. *Organization*, 21(5), 591– 603

CO-OPERATIVES UK. 2014. *The UK Co-operative Economy 2014: Untold Resilience*. Manchester: Co-operatives UK.

ERDAL, D. 2011. *Beyond the corporation: Humanity working*. London: The Bodley Head.

ERDAL, D. 2014. Employee ownership and health: An initial study. In *Co-operatives in a post-growth era: Creating co-operative economics,* edited by Webb, T., and Novkovic, S. 210–220. London: Zed Books.

EZCURRA, R., RIOS, V. 2019. Quality of government and regional resilience in the European Union. Evidence from the Great Recession. *Papers in Regional Science*, 98(3), 1267–1290. https://doi.org/10.1111/pirs.12417

GLAESER, E. L., SHLEIFER, A. 2001. Not-for-profit entrepreneurs. *Journal of Public Economics*, 81(1), 99–115. https://doi.org/10.1016/S0047-2727(00)00130-4

GRÁVALOS, M.A., POMARES, I. 2001. Cooperativas, Desempleo y Efecto Refugio. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 74, 69–84.

JULIÁ, J.F., BERNAL, E., CARRASCO; I. 2022. Economía Social y recuperación económica tras la crisis del COVID-19. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 104, 7–33.

KITSOS, A., BISHOP, P. 2018. Economic resilience in Great Britain: The crisis impact and its determining factors for local authority districts. *The Annals of Regional Science*, 60(2), 329–347. https://doi.org/10.1007/s00168-016-0797-y

LEE, N. 2014. Grim down South? The determinants of unemployment increase in British cities in the 2008–2009 recession. *Regional Studies*, 48(11), 1761–1778. https://doi.org/10.1080/00343404.2012.709609

MONZÓN, J.L. 2013. Empresas Sociales y Economía Social: perímetro y propuestas metodológicas para la medición de su impacto socioeconómico en la U.E. *Revista de Economía Mundial*, 35, 151–164.

MORANDEIRA, J. 2014. Euskal gizarte ekonomiaren bilakaera krisi garaian. *REVES-Revista Vasca de Economía Social*, X urteurrena, 137–153.

PERCOCO, M. 2012. Banfield aveva ragione: Sviluppo locale ed imprese cooperative in Italia. *L'industria*, 33(2), 283–304.

PEROTIN, V. 2013. Worker cooperatives: Good, sustainable jobs in the community. *Journal of Entrepreneurial and Organizational Diversity*, 2, 34–47.

RONDINELLI, M., SARATEANU, A. 2012. Riding the Economic Downturn: Cooperatives in Europe. In *The Consequences of the International Crisis for European SMEs: Vulnerability and Resilience*, editeb by Dallago, B. and Guglielmetti, C., 191–214, New York: Routledge.

SALA, M., FARRÉ, M., TORRES, T. 2014. Un análisis del comportamiento cíclico de las cooperativas y sociedades laborales españolas y de su relación con la actividad económica. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, 115, 7–29. http://dx.doi.org/10.5209/rev_REVE.2014.v115.45279

STIGLITZ, J. 2009. Moving beyond market fundamentalism to a more balanced economy. *Annals of Public and Cooperative Economics*, 80, 345–360.

TERZO, G. 2021. Social capital, social economy and economic resilience of Italian provinces. *Papers in Regional Science*, 100(5), 1113–1135.

THOMAS, A. 2004. The rise of social cooperatives in Italy. *Voluntas*, 15, 243–264.

WESTERDAHL, S., WESTLUND, H. 1998. Social Economy and New Jobs: a Summary of Twenty Case Studies on European Regions. *Annals of Public and Cooperative Economics*, 69, 193–218.

WILLIAMSON, T., IMBROSCIO, D., ALPEROVITZ, G. 2003. *Making a place for a community: local democracy in a global era*. Routledge, New York.

ZEVI, A., ZANOTTI, A., SOULAGE, F., ZELAIA, A. 2011. *Beyond the Crisis: Cooperatives, Work Finance*. Bruselas: CECOP.